

# ZOHARDIA



Oinarri **ideologikoak**





Zurekin  
**birsortu**



## SAR HITZA

Esku artean duzun testu hau Sorturen Birfundazio Kongresuan eztabaidagai jartzeko ponentzia da, Batzar Nazionalak aukeratutako 34 kideko lantaldeak osatu duena. Prozesuaren araudian zehaztu bezala, behin ponentzia hau publiko eginda PONENTZIA Lantaldeak bukatutzat jotzen du bere eginbearra.

### **Burujabetza prozesua**

ABIAN eztabaida prozesuak, datozen garaietan garatu beharreko estrategia independentista eraldatzailearen hezurdura marrazteaz gain, ezker abertzalearen birfundazioa agindu zuen, birkokatze estrategikoak eskatzen duen neurriko ezker abertzale berria osatze aldera. ABIANek Sorturi pasa zion lekukoa horrela. Orain, Sorturi fase politikoa zehaztasunez definitu eta estrategia mamitzea dagokio, mobilizazio ziklo berria suspertzeko gakoak eta agenda proposatuz, eta horretarako antolaketa eredu diseinatuz.

ABIANek zedarritu zuen orubean lau zimendu nagusi ezarri ziren. Lehenak ezker abertzalearen egitasmo estrategikoa berresten du; bigarrenak strategiaren muina definitzen du: independentzia jendartearen gehiengo baten gura bihurtzea –hautabide independentista–; hirugarrenak beste hainbat eragile sozial, sindikal eta politikorekin batera garatu nahi dugun burujabetza prozesu herritarren gakoak ematen ditu, bertan kokatuz gatazkaren ondorioak gainditu eta preso eta iheslari politikoen etxeratzeko bidea; eta laugarrenak, horri guztiari erantzun ahal izateko antolatzeko irizpide nagusiak eta hain beharrezkoa dugun borroka kultura berriaren zertzeladak marrazten ditu. Zimendu hauen gainean eraikitzea dagokio ponentzia honi.

Has gaitzen hasieratik: ezker abertzaleak bere egitasmo estrategikoa berresten du. Globalizazio neoliberalaren errealitate gordinak adierazten du gure sorrerako hipotesi estrategikoak inoiz baino gaurkotasan handiagoa duela: herri-eraikuntza eta burujabetza dira eraldaketa sozialerako gakoak. Bestela esanda, inoiz baino argiago dago burujabetzaren eta jendarte justuagoaren aldeko borroka elkar lotuta daudela. Beraz, abiapuntuko hipotesi estrategikoan sakontzea dagokigu.

Hain zuzen, Europan zehar gertatzen ari diren mugimendu askatzaileek herrien eta herritarren burujabetzaren aldarrikapena dute oinarrian, prozesu independentistak ekintza ziklo kolektibo beraren baitan kokatzen direlarik. Ortzimuga utopikoa izan dena errealitate material bihurtu da, burujabetzan aurrera egitea herritarren ongizatearen garantia izan daiteke geroz eta gehiago. Beraz, maila politikoan, sozialean zein kulturean aurrera urratsak egiteko aukera berriak ireki ahalko lituzkeen ofentsiba subiranista bat antolatzeko baldintza egokietan aurki gaitzke datozen urteetan Euskal Herrian, jendartearen hautabide independentista gorpuztu dezakeena.

Hori horrela, ezinbestekoa da egungo baldintzak neurtuz fase politikoa ondo definitzea.

Fase honen helburu behinena Euskal Errepublikari ateak irekiko dizkien prozesu konstituziogileak abiatzeko baldintza sozial eta kulturalak sortzea da. Txibertatik gaur egun arteko ibilbide historikoari jarraiki, ezker abertzalearen eginbehar nagusia, gaur gaurkoz, ez da arrazoia duela frogatzea edota bere egitasmo estrategikoa hegemoniko bilakatzea, Euskal Herriak Euskal Errepublikarantz doan ibilbide demokratikoa abiatu eta bide horretan urrats determinanteak eman ditzan erdiestea baizik.

Euskal Sozialismoaren eraikuntza prozesu historikoa dela kontuan izanik, etengabe jardun behar dugu baldintza material eta ideologikoak lantzen, E egun baten zain gelditu gabe. Bide horretan, eta bizi dugun testuinguruan, jendarte justu, berdinzale, iraunkor, feminista eta euskaldun baten alde egin dezakegun inbertsio politikorik emankorrena Euskal Errepublikara eramango gaituen dinamika autoeratzaillean sakontzea da.

Hori dela eta, burujabetza prozesuaren hezurramitzea da hain zuzen ponentzia honen lehen aztergaia.

### **Sorturen praxia eta borroka kultura**

Euskal Herria bidegurutzean dago. Globalizazio neoliberalak prekarizazio iraunkor eta mugarik gabekoa inposatzen ari da. Espainia eta Frantzia, nazioarteko eragile nagusiekin erabat lerratuta, globalizazio neoliberalaren bultzatzaile eta tresna dira une berean. Ukazioa eta subordinazioa, Estatuongandik ezin dugu besterik espero, ez baitute herrien nortasuna eta burujabetza aitortzeko inolako asmorik. Bide honek ezberdintasunak areagotuko ditu, askatasunak gehiago murriztu eta bizi eta lan baldintzak gehiago makurrarazi.

Badago beste biderik. Hamarkadetako borroka ireki du eta globalizazio alternatiboak bultzatzeko saioetan kokatzen da. Beste mundu bat posible delakoan, Euskal Herrian ere beste zibilizazio baterako trantsizioa egin nahi dugu. Gure zerumuga ez da tsunami neoliberalak suntsitu ez duenari heltzea. Ez gaude iraganari begira. Gure zerumuga beste zibilizazio bat eraikitzea da. Gure herriaren taupadak bat egiten du mundu osoan zehar alternatibak eraikitzeko borrokan ari diren herrien taupadekin. Tsunami neoliberalari aurre egiteko plan bat behar du herri orok, egitasmo partekatu bat, eta gurea Euskal Errepublika demokratikoki eta behetik gora eraikitzea da.

la 60 urteko mobilizazio eta borroka ziklo oparoaren hondarrean argi dugu ezinbestekoa dela bestelako logika, diskurtso eta jardueren araberrako ziklo berria irekitzea. Mobilizazio ziklo berria, aurreko zikloaren uzta baliatuz, eta agortutako ereduak gaindituz eta berriak sortuz urratu behar da. Akats estrategiko larria litzateke bidegurutze honen erronkari agortutako tresna, oinarri eta formulen bidez aurre egin dakiokela pentsatzea, honaino ekarri gaituen bidea errefusatzea bezain larria. Ibilbidearen onenaren balioztatpena batetik, eta birziklapena eta berrikuntza bestetik, hauek dira gakoak. Bazter dezagun azaleko sendotasun teoriko autoerreferentea eta jar dezagun erdigunean eraldaketarako gaitasuna, malgutasuna irmotasunaren ezinbesteko osagai eginez. Horretarako, bizi dugun errealitatea aztertzeko gaitasuna eta gure teorizazio prospektiboaren zentraltasuna

berreskuratu behar ditugu behingoz. Izan ere, ongi dago beste esperientziak aztertu eta baliogarri zaiguna inspirazio gisa hartzea, baina gure bidea geuk marraztu behar dugu.

Bide berri honi ekiteko geure buruak berrasmatu behar ditugu. Hauxe da ezker abertzalearen birfundazioa galdegiten duen testuinguru historikoa. Borroka kultura berri batek blaitutako ezker abertzale indartsu eta bateratua funtsezkoa izango da aurrerabideak jorratzeko.

Bi dira berrikuntza horren oinarritzko osagaiak. Batetik, erresistentzia nortasuna gainditu eta egitismo nortasunerako jauzia egin behar du ezker abertzaleak. Honek ez du esan nahi erresistentziaren beharra agortu denik, joera nagusiaz ari gara. Biziraupenerako baldintzak sortzea izan da agortzen ari den zikloaren ekarpen historiko nagusia. Baina behin helburu hori beteta, erronka berriak ditugu aurrez aurre. Honek iraultza sakon eta zorrotza eskatzen digu gure ikuspegietan, gure diskurtsoan, gure jardueretan eta gure antolakuntza ereduan. Aro berriaren erronka ez da protestatzea edo neurri kaltegarri erantzutea, beste jendarte bat eraikitzea baizik. Eta honek eraikuntza eta eraldaketa indartzea eskatzen du derrigorrez.

Bestetik, jite abangoardistak baztertu eta lidertza demokratikoan oinarrituriko praktika politikoan trebatu behar du ezker abertzaleak. Artzain-artaldearen paradigma alboratu egin behar da, ondorio guztiekin. Artzain izateko tentaldi orori bidea itxi behar zaio, eta, aldi berean, ardi izateari ere utzi behar diogu. Honek errotutako inertzia asko haustea eskatzen digu. Ezker abertzaleak argi izan behar du, beraz, bere betebeharra ez dela estrategia herriaren ordeztasun pentsatu eta gauzatzea. Herriari eta herri-eragileei dagokie hori, gu parte garelarik. Guri eztabaidak irekitzea, proposamenak egitea, ekimenak sustatzea dagokigu, elkarrizketa eta sorkuntza kolektiboari bide ematen saiatuz beti ere. Horrenbestez, ponentzia honen helburua ez da dena zehaztea, bidea argitzeko oinarri sendoak proposatzea baizik.

Sortuk garatu beharreko praxi eraldatzailea, borroka kultura eta antolakuntza ereduak ditu bigarren aztergai esku artean duzun ponentzia honek.

### **Ponentziari buruz**

Bost puntutan laburbil genezake ponentzia honek izan nahi duen irismena:

1. Fase politikoaren definizio ahalik eta zehatzena eman, egungo eta epe ertaineko lehentasunak finkatuz.
2. Mobilizazio ziklo berria suspertzeko gakoak eta agenda aurreratu, datozen 5-10 urteetako ibilbidea eta praktika politiko-soziala marraztuz.
3. Proposamen eta diskurtso independentista berritu.
4. Sorturen praxia eraldatu, kultura eta praktika politiko berria gauzatzeko antolakuntza ereduak definituz.
5. Euskal teoria eraldatzailearen berrikuspenerako ekarpena egin.

Birfundazio Prozesuaren ezaugarri jarraiki, ponentzia honek ez du eztabaida endogamiko bat sustatu nahi. Aitzitik, erabakimena prozesuan akreditatutako ezker abertzaleko oinarriek izango badute ere, eztabaida publikoa da egin nahi dena, burujabetzaren aldeko herri-sektore anitzei gogoetarako gonbidapena luzatuz. Bi xede talde nagusi ditu beraz ponentzia honek:

1. Ezker abertzalearen oinarri zabala. Ezkerreko independentista, abertzale eta euskaltzaleen komunitatea.
2. Burujabetzaren aldeko herri-sektore eraldatzaileak. Herrigintzaren espresio ezberdinetan diharduten sektore anitzak.

Hori kontutan izanik, honako ezaugarri hauek biltzen dituen ponentzia eredu osatzen saiatu gara:

- Ildo politiko orokorrari dagokiona. Ponentzia honek ez du agenda sektorialik garatzeko asmorik.
- Izaera praktikoa duena, eguneroko jarduerarako tresna erabilgarria izateko bokazioz.

Honako hauek dira ponentzia honen atalak:

1. Oinarri ideologikoak: Sorturen izaera, baloreak, erronka eta funtzioak. Atal hau txertatzearen zergaiti nagusia honakoa da: ospatuko den kongresua Birfundazio Kongresua denez gero, Sorturen estatutuak berriztu behar dira. Estatutuen artikulatuaren gaineko eztabaida teknikoegia eta luzeegia litzatekeenez, atal honetan estatutuak idazteko baliatuko diren oinarri ideologikoak jasotzen dira, eta hirugarren atalean, berriz, oinarri organizatiboak. Ponentzia hau onartuz gero, oinarri hauen gainean egingo den itzulpen juridikoa ere ontzat ematen da, estatutuak Kongresuan berretsiko direlarik.
2. Ildo politikoa: Burujabetza prozesuaren definizioa eta Sorturen praxi politikoa. Lehen eta hirugarren atalak, batez ere, Sortun bilduko den oinarri militanteari begirakoak dira. Bigarren atal honekin ordea, aurrez esan bezala, ezker abertzalearen oinarri sozialaz haratagoko herri-sektoreei ere luzatzen diegu gogoetarako gonbidapena. Hori dela eta, idazkera ezberdina baliatu da.
3. Eredu organizatiboa: Sorturen printzipio eta egitura organizatiboak. Hirugarren atal honetan marrazten den eredu organizatiboa aldaketa-prozesu gradual eta dinamiko baten ondorio izango da nahitaez, azken batean kultura organizatibo oso bat aldatzeaz ari baikara, eta hori ez baitago gauetik goizera egiterik. Bestalde, Sorturen eredu organizatiboa EH Bilduk eta EH Baik etorkizunean izango duten konfigurazioaren hipotesi baten gainean definitu da. Eta horrela behar duela deritzogu; hau da, Sortu, gaur eta baita biharko egunean ere, aliantza estrategikoak diren EH Bildu eta EH Bairekiko osagarritasunean definitu beharko da eredu organizatiboari dagokionez. Konferentzia Politikoaren eta bestelako bitarteko bidez, EH Bildu eta EH Bai berrantolatzen doazen heinean, posible da Sortuk bere







# 1.-SORTU

## 1.1.- SORTUREN IZAERA

- 1.- SORTUK bere burua definitzen du erakunde politiko iraultzaile gisa, zeinaren helburua den Euskal Herri independente, sozialista, feminista eta euskalduna erdiestea, horrek gaur egungo fase politikoan prozesu independentista eta eraldatzaile bat garatzea beharresten duelarik, estatu berezitu, burujabe eta sozialki aurreratu bat eraikitzearen: Euskal Errepublika.
- 2.- SORTU Ezker Abertzaleko pertsonak eta erakundeak biltzen dituen mugimenduaren adierazpide politiko-antolamenduzkoa da, haren ildo politiko orokorraren gogoeta-, eztabaida- eta erabakimen-esparrua, baita erreferentzia politiko nagusia ere, den bezainbatean.
- 3.-SORTU bere baitan Ezker Abertzalearen mugimendua artikulatzeko xedez birfundatu eta, horretarako, haren historia eta izaera beretuz, alderdi-mugimendu gisa auto-eratu da, izan ere, dela zuzenean dela zeharka, bai borroka instituzionalaren alorrean bai instituzioetatik kanpo ere jardun beharko duelako, eta apustu egiten duelako bere baitan bi antolakera-tradizio hauen ikuspegiak eta jokabideak bateratzearen alde: herri-mugimenduek hain berezkoak dituzten batzartasuna, partaidetasuna, aktibismoa eta transgresioa, batetik, eta alderdi politikoei hain berariazkoak zaizkien egituratzea, eraginkortasuna, ideologia definitua, ordezkaritza instituzionala (zuzeneko nahiz zeharkakoa) eta kohesio- eta sintesi-mekanismo zehatzak, bestetik. Beraz, SORTUK, mugimendu den aldetik, ekarpenerako, lanketarako eta aktibismorako guneak eta dinamikak antolatu beharko ditu, eta, alderdi den aldetik, erakunde eta mugimendu sektorial guztien ekarpenak bideratu eta sintetizatu beharko ditu izaera eta irismen nazionaleko egitasmo politiko orohartzaile batean, hartara ikuskera zabalagoa eskainiz erakunde eta mugimendu sektorial horienak baino. Izan ere, SORTU ez da ez alderdi ez mugimendu. Biak batera da, halere: mugimendu ez-konbentzional bat, alderdi forma eta mugimendu ezaugarriak dituena.
- 4.- Nolanahi ere, SORTU ez da Herritar Batasun berria. SORTUK uste du ezen, gaur egungo fase politikoan, eta beronen helburu politikoei begira, eginkizun hori EH Bilduri eta EH Bairen dagokiola.
- 5.-Sortuerakunde demokratiko bat da, apustuirmoa dagiena demokratikotasun horisakontze eta errotzearen alde, bai jendarte osoaren antolamenduari eta funtzionamenduari dagokienez, bai Sorturen beraren barne-antolamenduari eta barne-funtzionamenduari dagokienez ere. Areago, Sortuk bere proiektu politiko, Euskal Sozialismoa, ezaugarri horietan argitan ulertzen du hain zuzen ere, hots, sakontze eta errotze demokratikozko

prozesu gisa. Zentzu horretan, Sortuk demokraziaren zentzu liberal eta ordezkartzakoa gainditu eta demokrazia armoniko gisa ezagutzen denaren aldeko apustua egiten du: hiru demokrazia mota dialektikoki eta eraginkortasunez artekatzen dituen antolaketa eta gobernu sistema : ordezkatzaila, parte hartzailea eta demokrazia zuzena, beti azken bi horien pisua handitzeko helburuz, eta lehenarena murriztuz; demokrazia parte hartzailea eta demokrazia zuzena emantzipazio pertsonal eta kolektibo handiagoari atxikitzen baitizkiogu. Azkenik, Sortuk erabakitze-eskubidearen aldeko apustu sendoa egiten du, zeina baita sakontze-errotze demokratikozko prozesuaren lanabes eta adierazpiderik behinena.

6.-Sortu erakunde iraultzailea da statu quo-a (zapalkuntza nazionala, soziala eta generozkoa) errotik aldarazi nahi duelako, prozesu eraldatzaile oso baten bidez (prozesu independentista eraldatzailea). Prozesu horrek lege aldaketa eta aldaketa instituzionalak, herri mobilizazio hazkor eta desobedientzia zibil eta instituzional masibo arekin konbinatu behar ditu, euskal errepublika sozialki aurreratua eraikitze fase politiko honetan eta sozialista ondorengo faseetan. Sortuk ez du iraultza amaiera-gertakizun gisa begiztatzen, baizik eta prozesu askatzaile gisa, zeinean gaurdanik hasten baikara eraikitzen eta gozatzen, herri-boterea eta subiranotasuna egunetik egunera irabaziz. Bestetik iraultzaile ororen zeregina da boterea edo Estatuaren gidaritza hartzea, hau komunaren monopolio gisa ulertuta. Ezker Abertzaleak ezin dio uko egin Estatu propio bati gauzen egoera aldatzeko tresna gisa, baina parametro guztiz ezberdinen gainean eraikitzea behartuta dago, ez dadin estatu zapaltzaile zaharren birsortze hutsa izan.

7.- Sortu errepublikarra eta konfederalista da, aldeztu duen estatu-era, lehen urratsean bederen, izaera konfederala errepublika bat baita, edo, zehatzago esanda, euskonafar errepubliken konfederazio bat (Nafarroa Garaia, Ipar Euskal Herria, Mendebaldeko Foru-Lurraldeak -Araba, Bizkaia, Gipuzkoa).

8.-Sortu Euskal Herriko klase eta sektore herrikoien zerbitzurako erakundea da, horiek baitira independentzian eta sozialismoan benetan interesaturik dauden bakarrak.

9.-Era berean, Sortu ez da abangoardiako erakunde politiko bat, eta are gutxiago erakunde oro-zuzendari bat, zeineko militanteek dena zuzentzeko irrika leukaketen, eta ororen kontrol osoaren obsesioa, dela Sorturen beraren barruan, dela beste erakunde batzuekin edo jendartearekin berarekin era genitzakeen herri-mugimenduen, fronteen edo blokeen barruan. Alderantziz: Sortuko militantziak jendearen protagonismoa eta partaidetasuna hauspotuko ditu erabakiak hartzerakoan, partaide den ekimen eta antolaketa-gune guztietan, berorien autonomia ardura osoz zaindu beharreko balioztat errespetatuz eta errespetatuz.

10.-Sortuk mundu osoko ezkerreko eta askapen nazionala mugimenduen esperientzia teoriko-praktikotik edaten du, eta marxismoa darabil errealitate soziala analizatzeko

metodo nagusietarikotzat, betiere Euskal Herriko baldintzetara egokituz. Sortuk erdietsi nahi duena Euskal Herrian sozialismoa eraikitzea baita, ez ezein dogmari eustea.

- 11.-Sortu erakunde abertzale eta internazionalista da, Euskal Herria Espainiaren, Frantziaren edo beste edozein nazionalismo hegemonikoren menpean jarraitzeari uko egin nahi diogulako, eta beren burujabetza nazional eta sozialaren alde borrokan diharduten herri guztiekiko elkartasuna dugulako geure balio behinenetarikotzat.
- 12.-Sortu erakunde feminista da, bere helburu baitu sistema patriarkala gainditzea eta harreman bidezko eta berdintasunezkoetan oinarrituriko jendarte bat eraikitzea. Zentzu honetan, Sortuk aintzat hartzen du feminismoaren ekarpena, eta hitzematen du ikuspegi hori barneratu egingo duela arduratsuki bere praxi politiko eta antolamenduzkoan. Era berean kongresu prozesu honetan hartzen diren printzipio politikoekin eta antolamenduzkoekin koherentea den politika feminista propioa eztabaidatu, zehaztu eta garatzeko konpromisoa hartzen du.
- 13.-Sortu erakunde guztiz beregaina da, egituraz eta ideologiaz, nazioarteko zeinahi entitate politikogandik. Nazioarteko gure adiskidetasun- eta aliantza-politikaren ildotik, gogaide zaizkigu, eta erreferente nagusietarikoak, Munduko Foro Sozialean elkartzen diren Nazio Askapenerako Mugimenduak eta Mugimendu Altermundialistak. Europa mailan, Ezker Bateratu-Ezker Berde lpartarrak eraturiko Taldea eta mugimendu soberanista-independentistak dira gure aliatu hobetsiak.
- 14.-Sortu erakunde nazionala da, Euskal Herri osoa baitu hedadura- eta jarduera-eremu, bai hedaduraren bai jardueraren helburua, hain zuzen ere, zazpi euskal lurralde historikoak birbatuko dituen estatu bat erdiestea denez bezainbatean. Eta helburu horri begira, estrategia ere nazionala izateari ezinbestekoa deritzo.
- 15.-Sortu erakunde euskalduna da, euskararen erabateko normalkuntza aldeztu duelako ez ezik, bere barne-funtzionamendua ere euskaraz bideratu nahi duelako, era berean. Nolanahi ere, Sortu jabetzen da zein den gure herriaren errealitate soziolinguistikoa, baita egiaztatzen ere bere hainbat militante euskara ulertzeko bai baina euskaraz mintzatzeko gaitasunik ez dutela oraingoz, eta beste hainbatek ulertu ere ez dutela egiten. Horregatik, Sortuk behar diren mekanismo guztiak atonduko ditu Sortuko pertsona militante oraindik euskara-hiztun ez direnek erakundearen barne-bizitzan parte hartu ahal izan dezaten beren ezein eskubidetan kalterik nozitu gabe, nahiz eta, bidezko ordainetan, exijitu ere egingo zaien militante horiei nork bere burua euskalduntzeko konpromiso eraginkorra. Sortuk euskara lehenetsiko du bere kanpo-komunikaziorako, baina gaztelania, frantsesa eta are ingelesa ere erabiliko ditu, unean uneko publiko hartzailearen ezaugarri soziolinguistikoen eta helarazi nahi den mezuaeren helburuen arabera. Azkenik, Sortuk gure herriko errealitate soziolinguistikoaz debate

serio bat egiteko konpromisoa hartzen du, lortutakoaz eta euskararen etorkizuneko erronkez, gure helburuak erdiesteko behar diren epe eta formulekin hizkuntza politika propio eta autonomoa zehaztuz.

### 1.2.- SORTUREN BALIOAK

16.-Sortuk aintzat hartzen du herri guztiek duten eskubidea, bakoitzak bere etorkizuna askatasunez erabaki eta bere burua estatu berezitu eta gobernu demokratiko banaz hornitzeko.

17.-Sortuk ezin ukatuzko printzipio deritzo sediziorako eta matxinadarako eskubideari, zapalkuntza-, menperakuntza- nahiz larderia-egoera oren aurka.

18.-Sortuk atxikimendu osoz hartzen du bere gain demokraziaren defentsa, eta, bereziki, gure jendartearen –eta gainerako herrietakoen- errotze demokratiko eta berdintasunezkoaren aldeko erantzukizuna.

19.-Sortuk funtsezko balio irizten dio feminismoari, bai emakumeen bai gizonezkoen burujabetzaren ikuspegitik begira. Horregatik, Sortu ahalegin etengabea saiatuko da genero-rolen ezarpena ezabatzen, generoen arteko botere-harremanak itzulikatzen eta berdintasunean oinarrituriko jendarte bat eraikitzen.

20.-Sortu ahaleginduko da, halaber, gure herria osotoro berreuskalduntzen, eta, horretarako, ezinbestekoa deritzo euskarari lehentasuna emateari, Euskal Herrian mintzo diren beste hizkuntzak ezertan gutxietsi gabe. Kontrara, egun gaztelera edo frantsesa gehiago erabiltzearen arrazoia gure herriak bizi duen zapalkuntza den arren, uste dugu balio handikoa dela ahalik eta hizkuntza gehienek ezagutza izatea eta uste dugu, beti ere aipatutako diglosi egoera borrokatuz, gure kultura eta jendarte beste hizkuntza horiekin aberastu behar dugula.

21.-Sortuk sozialismoaren alde, justizia sozialaren alde eta desberdintasun sozial eta ekonomikoen deuseztapenaren alde dihardu, eta, borroka horretan, gizakiaren ustiapen-mota oren aurkakotzat kokatzen du bere burua. Horregatik, Sortuk errotik gaitzesten ditu kapitalismo heteropatriarkala eta beronen ondorioak (pertsonek lan- eta bizi-baldintzen narriadura, garapenismoa, natur baliabideen sakailatzea, baliabide publikoen zarrastelkeria, kontsumismoa, bereizkeria eta bortizkeria sexista...) eta, ondorioz, gogotsu sustatuko du herrien, pertsonen eta belaunaldien arteko elkartzasuna, baliabideen eta aberastasunaren banaketa bidezkoa lortze aldera .

22.-Sortuk hitzematzen du arduratsu babestuko dituela ingurumena eta Euskal Herriaren ondare natural eta ekologikoa, berau gozatzeko aukera izan dezaten etorkizuneko belaunaldiek ere.

- 23.-Sortuk berresten du ipar-hego harremanak, bai politikoki bai sozialki, bai ekonomikoki ere, biziberritu eta zuzenagotzearen aldeko jarrera. Harreman horiek, betiere, esku-hartze eta esku-sartze orotatik aparte, nazioarteko lankidetzan eta elkartasunean funtsatuz.
- 24.-Sortuk sustatu egingo du errefuxiatu politiko, ekonomiko eta ingurumen-arazoen eragindakoekiko elkartasun eraginkorra, eta betebeharrak saihestezina deritzo haiei gure jendartean abegi egiteari. Zentzu horretan, Sortuk printzipio hauek jasotzen dituen eta pertsona guztien eskubideak bermatzeko balioko duen migrazio politika bat eztabadaidatu eta zehazteko konpromisoa hartzen du.
- 25.-Sortuk arbuiatu egiten du merkataritza libreko deritzakeen nazioarteko edozein itun, baldin halakoak merkatuaren eta transnazionalen interesak ezartzen baditu pertsonen eta herrien ongizatearen eta ingurumenaren begirunearen gainetik.
- 26.-Sortuk uste du gaur egungo Europar Batasuna proiektu antidemokratiko eta antisozial bat dela, soil-soilik estatu-nazioek – benetako herrien kartzela besterik ez direnek – eta transnazional handiek beren onurarako ez bestetarako pentsatua. Beraz, Sortuk deblauki ezesten du Europar Batasunaren gaur egungo eredua, eta bere burua atxikitzen dio pertsonen zinezko interesak eta beharrezkoak zerbitzatu lituzkeen Herrien Europa demokratiko baten aldeko borrokari. Nolanahi ere, Sorturen iritzia da etorkizuneko Euskal Estatua Europar Batasun horretan sartzea nahiz at gelditzea euskal herritarrei ez beste inori dagokien erabakizun bat dela, zeina gauzatu, erreferendum bidez gauzatuko bailitzatekeen, eztabaida sozial sakon baten ondoren.
- 27.- Sortuk bere burua errotik humanistatzat du eta giza eskubide guztien errespetuaren alde egiten du.
- 28.-Sortuk borroka egiten du arrazakeriaren, matxismoaren eta bereizkeria-mota ororen aurka, zioak edozein direlarik ere: etnikoak, linguistikoak, erlijiosoak, orientazio eta/edo identitate sexualekoak, elbarritasun nahiz gaixotasunezkoak.
- 29.-Sortuk aldeztu egiten ditu adierazpen-askatasuna, bilera, manifestazio eta zirkulazio librerako askatasunak, eta eskubide zibil eta politiko guztiak, oro har.
- 30.-Sorturen iritziz, botere publikoek sustatu eta bermatu behar dituzte, pertsonen bizitza osoan barrena, hezkuntzarako, kulturarako, osasunerako, ingurumen onuragarri baten gozamenarako, etxebizitza duin batean bizitzeko eta diru-baliabide minimo batzuen segurantzia izateko denok ditugun eskubideak.
- 31.-Sortuk uste du begirune osoa zor zaiela pertsonen bizimodu pribatuari eta norberaren intimitaterako eskubideari.

- 32.-Sortuk defendatu egiten du, pertsona guztientzat, bigarren aukerarako eta birgaitzerako eskubidea, eta gaitzesten du, ondorioz, norberak birgizarteratzeko eta bere bizitza berregiteko daukan eskubide hori aintzat hartuko ez lukeen zigor-mota oro. Herri honek bizi duen salbuespen juridikoak eta kartzelarekin izan dugun harreman komunitarioak zuzenbidearen eta justiziaren ikuspegi mendekuzko eta zigortzaileak kuestionatzeko balio behar du.
- 33.-Sortuk laikotasun-printzipioa sustatuko du esparru guztietan, eta, pertsona guztien kultu- eta kontzientzia-askatasuna errespetatuz betiere, ez du inoiz ezein intolerantzia-mota onartuko (kristianofobia, islamofobia...), ezta erlijio-kredo jakin bat edo beste hobesteko ezein saiakera ere. Beraz, ezetsiko ditu erlijioa pertsonen barne-eremutik atera eta espazio publikora hedarazteko ahaleginak oro.
- 34.-Sortuk bere burua hitzematen du bakearen, desarmearen eta gatazken ebazpen hitzartuaren alde. Sortuk uste du desmilitarizazioaren aldeko politika orokor bat bultzatu behar dela eta bakearen aldeko kultura sustatu behar dela, moralismoan eta historiaren zein gizadiaren ikuspegi naif batean erori gabe.
- 35.-Sortuk ezin arbuigarriago deritze ustelkeria politikoari, eraginen trafikoari, iheskeria fiskalari eta, oro har, eginkizun publikoaren, bizitza politikoaren eta bizitza ekonomikoaren edozein esparrutako lausokeriari. Halakoak gaitzetsiz, gardentasuna du Sortuk bere balio goiburu.

### 1.3.- SORTUREN ERRONKA

- 36.- Sorturen erronka, fase historiko honetan, prozesu independentista bat lantzea eta dinamizatzea da, Euskal Errepublika eraikitzearen. Horretarako, lehenik, behar adinako gehiengo independentista eta aurrerazalea artikulatzen lagundu behar du.
- 37.- Helburu horri begira, Euskal Herriaren errealtate juridiko-administratiboa kontuan harturik, baita errealtate hori gaur egun banatua dagoen hiru espazio berezitueterako bakoitzean gehiengo independentista bana artikulatu beharra ere, eta beti euskal lurralde guztiak lehenbailehen birbateratzea helburutzat zedarriturik, Sortuk taxukera asimétriko eta konfederaleko estrategia independentista eta eraldatzaile bat garatzearen aldeko apustua dagi, estrategia bat, zeinak elkartuko duen hiru prozesu eratzaille berezitu horien garapena – non espazio horietako bakoitzak bere erritmo propioan gauzatu ahal izanen baitu independentziarainoko eta beste bi espazioekiko birbateratzerainoko ibilbidea – trinkotze nazionaleko prozesu amankomun batekin, honek, paraleloki, ahalbideratuko duelarik hiru espazioen arteko lotura sozialak, politikoak, ekonomikoak, instituzionalak eta kulturalak indartzea.



38.-Beraz, Sorturen erronka, gaur egungo fase politikoan, atxikia dago proiektu independentista eta eraldatzailea hegemoniko bihurtu beharrari, hegemoniatzat ulertuz proiektu hori jendartearen gehiengo zabal batek onartzea eta bereganatzea; eta halaxe izatea, hain zuzen ere, esan berri dugunez, Euskal Herrian gaur egun dauden hiru espazio juridiko-administratibo horietako bakoitzean.

39.-Horretarako, Sortuk utopia balioetsiko duen praxi politiko bat garatu behar du, ikusaraziz badugula proposamen politiko gauzagarri bat: Euskal Errepublika. Proposamen bat, independentzia, justizia soziala, genero-berdintasuna eta demokrazia partehartzailea bateratzen dituena, tokian tokiko esparrutik nazio osoareneraino.

40.- Inork ez ditu bere pribilegioak edo bere izaera esplotatzailea borondate propioz uzten. Horrek behartu egiten gaitu beligerante izatera kapitalismoaren eta beronen estaldura ideologikoa den neoliberalismoaren aurka, eraldakuntza sozialen premia agerian jarritz; eta behartzen gaitu Estatu Espainiarrari eta Frantsesari demokratikoki aurre egitera, deskonexiorako eta euskaldunontzako estatu propio baten eraikuntzarako aurretiazko urrats gisa. Gainera, behartzen gaitu geure programa politikora izaera alde edo moldez aurrerazale eta eraldatzaileko borroka-gai sozial guztiak eranstera: feminismoa, ekologismoa, berreuskalduntzea eta giza eskubideen defentsa; baina baita beste zenbait iharduki-gai ere, itxuraz hain munta handikoak ez dirudiketenak, hala nola laikotasuna (bizitza sozial eta erlijiosoaren bereizketa), bakezaletasuna (gerraren aurkakoa, sekurokratismoaren aurkakoa, armamentu-lantegien ekoizpena bestelakatzearen aldekoa) edo nazioarteko elkartasuna (internazionalismoa, errefuxiatuen harrera, laguntza internazionalerako lankidetzeta edo Tobin tasaren esleipena, etab).

## 1.4.- SORTUREN EGINKIZUNAK

### 1.4.1.-Ezker Abertzalearen kohesioa eta zuzendaritza

41.-Lehentxeago esan bezala, Sortu Ezker Abertzalearen ildo politiko orokorraren eztabaida- eta erabaki-esparruan kokatzen da, haren erreferente politiko nagusi gisa.

42.-Horregatik eta horretarako, Sortuk onartzen eta bere egiten du Ezker Abertzalearen proiektu politiko historikoa, baita beronen orientazio estrategiko birmoldatu berria ere, eta hitzematen du bermatuko duela bere mugimendu-izaera :

- LAB eta Ernai aintzat hartuz mugimendu horren partaide gisa, bataren zein bestearen autonomia errespetatuz bakoitzaren jarduera-eremuan.
- dagoeneko adierazia dugun bezala, antolaketaren eta jokabidearen aldetik,

mugimendu batenaren hurbilekoak liratekeen ezaugarriak geureganatuz;

- alde batetik, afiliazio-aukera eskainiz pertsona orori, baldin Ezker Abertzalearen proiektu politikoarekin ados badago eta funtzionamendu kolektiboaren oinarritzko joko-araua onartzen badu - hau da, kolektiboki hartutako erabakiekiko norbanakoaren atxikimendua - ; eta, beste alde batetik, partaidetza- eta ekarpen-bideak eskainiz, proiektua bera eta aipaturiko joko-araua onartu arren, hala ere Sortun militatu nahi ez duten edo ezin duten pertsona guztiei ere.

#### 1.4.2.-Subjektu independentista-eraldatzailearen artikulazioa

43.-Sortuk artikulatu eta dinamizatu egin behar du emantzipazioaren subjektua, hots, euskal herritargoa bera, eta, bereziki, herritargo horren sektore ezeukienak (langabetuak, langile prekarioak, autonomoak, ikasleak, kooperatibistak, klase ertain soldatapekoak...), horiek baitira euskal estatu burujabe, erabat demokratiko, berdinzale eta sozialki justu batean benetan interesaturik egon daitezkeenak.

44.-Horretarako, lehen urrats gisa, Sortuk antolatu egin behar ditu, gaur egungo errealtatea (menperakuntza franko-espainiarra eta kapitalista) errotik eraldatzearen, beren burua lanabes politiko erakundetu batez hornitu nahi duten pertsona guztiak. Eta erreferente politiko bihurtu beharra du, maila nazionalen eta sozialean, gauzen egoera aldatu gura duten pertsona guztientzat, zeinahi delarik ere horietako bakoitzak borrokan diharduen lubakia (instituzioak, herri-mugimendua, mugimendu sindikala, gazte-mugimendua...).

45.-Nolanahi ere, Sortu beharrezkoa da, baina ez bere horretan aski adinakoa, independentziaren eta sozialismoaren aldeko borrokaren garaipena bermatzeko. Horregatik, Sortuk aliantzak egin beharko ditu bien-bitarteko maila edo jokaleku ertain horiek berak erdiestearren interesaturik egon daitezkeen beste zenbait indar eta sektoreekin.

46.-Izan ere, estatu espainiarrari eta frantsesari nahiz neoliberalismoari aurre egiteko gai liratekeen gehiengo sozialen artikulazioak Fronte Zabala edo Fronte Sozial Independentista bat eratzea beharresten du, bai erakundeetan bai kalean prozesu independentista-eraldatzaile bat lideratzeko gai izango litzatekeena. Fronte horrek, Sorturen iritziz, indar politikoak ez ezik, indar sozialak eta sindikalak ere bildu beharko lituzke bere baitan.

47.-Zentzu honetan, eta etorkizuneko Fronte Zabala horren ernamuina izan litekeen neurrian, EH Bildu eta EH Bai garatzen eta indartzen laguntzeari deritzo Sortuk bere

eginkizunik behinenetariko bat. Horretarako, ezinbestekoa da:

- EH Bilduri eta EH Bai protagonismo mobilizatzaile eta mediatiko gehiena aitortzea.
- EH Bildu eta EH Bai militantez hornitzea. Sortuko kide orok aldi berean EH Bilduko eta EH Bai kide izan behar du.
- EH Bildu eta EH Bai koadro politikoz nahiz instituzionalez hornitzea.
- EH Bildu eta EH Bai planteamendu politikoz eta programatikoz hornitzea.

Eta hori guztia egitea tentazio oro-zuzendari, abangoardista eta/edo uniformizatzaile orotatik at. Sortuko militantzia osoak erabat gogoan eduki behar du beti ezen EH Bildu eta EH Bai, ideologikoki eta politikoki aliantza plural bat direnez gero, ez dela eta ez direla izan behar Sortu (bezalakoa). Pluraltasun hori zaindu beharra dago ardura osoz, non nahi ez dugun EH Bildu edo EH Bai "Sortu Zabal" bat bihur daitezen.

48.-Hala eta guztiz ere, prozesu independentista-eraldatzaileak lankidetz-espazioak beharko ditu nahitaz (mobilizazioari begira, eta are lehia elektoralari eta instituzionalari begira ere), EH Bildu eta EH Bai zein aipaturiko Fronte Zabal hori bera baino ere zabalagoak, hala nola den, adibidez, Nafarroan aldaketaren aldeko lau indarrek lortu zuten akordio programatikoa, edo hala nola izan litekeen, beste adibide bat jarritz, EAJri, nahiz Podemosi, edo biei batera, egin lekiekeen eta egin zaien lankidetz- proposamena, EAEko erakundeak burujabetzaranzko eta aldaketa sozialeranzko prozesu baten zerbitzura bideratzearen.

### 1.4.3.-Taktika eta estrategia.

#### Prozesu Independentista-Eraldatzailearen diseinua.

49.-Sortuk bere burua eratu beharra du politikoki antolaturiko pertsona-talde baten gisa, zeinak gai izan behar duen, emantzipazio nazional eta sozialaren bidean aurreratzearen, estrategiak eta taktikak diseinatzeako, horretarako ongi begietsiz eta aztertuz herri-mugimenduaren eta aktibismo sozialaren, borroka instituzionalaren eta ideien gatazkaren ahalbideak.

50.-Ezker Abertzaleak beti konbinatu izan ditu epe luzerako helburuak unean uneko edo berehalako planteamendu nahiz borroka taktikoekin. Ez dago kontraesanik, berez, helburuko azken emantzipazioaren eta egunean eguneko errebindikazioaren artean, berehalako hobekuntzen aldeko borrokak ez baitakarkio kalterik, inola ere, borroka nagusiari. Narriadura sozial eta nazionala berehalako helburu eta hobekuntzen bila borrokatuz ekiditen saiatzea eta azken buruko emantzipazio osorantz aurrera-urratsak egitea ez dira bi jarduera uztarrezin. Aitzitik baizik: helburu eta hobekuntza unean-

uneko horiek bidea urratzen dute, eta proiektu politikoa egingarri bihurtzen.

- 51.-Honela bada, Sortuk pentsatu, birpentsatu eta taigabe elikatu behar du gogoeta estrategikoa, baina gai izan behar du, aldi berean, estrategia hori ekimen politiko zehatz eta berehalakoetan mamitzeko, horrela bakarrik ahal izango baita jokaleku politikoa aldatu eta horrela bakarrik aukerak baliatu, azken finean estrategia horretantxe baitatza: aukerak baliatzeko gaitasunean.
- 52.-Azkenik, Sortuk pentsatu beharra du, baina ez bakardadean, gai izan behar baitu bere militantziarenaz baino askoz urrunago doakeen pentsamendu kolektiboa jasotzeko ere. Eta, horretarako, gainerako eragile politiko, sozial eta sindikalekin, herri-mugimenduarekin eta, oro har, jendearekin, elkar-ekin beharra du.
- 53.-Nolanahi ere, gaur egungo fase politikoan, Sortuk prozesu independentista eta eraldatzaile integral bat oldoztu behar du, baita berori burutzeko behar diren baldintzak, ekimenak, aliantzak eta biderako lanabesak zehaztu ere.

#### 1.4.4.-Ideien borroka

- 54.-Sortuk deliberatuki ekin eta eutsi behar dio ideien borrokari, bere eginkizunik behinenetarikoa baitu, hain zuzen ere, subjektu herritarraren kontzientzia-maila etengabe igoaraztea, beronen esku jarria baitugu erabat prozesu independentistaren protagonismoa.
- 55.-Zentzu honetan, ez zaigu aski, inondik ere, prozesu independentista eduki sozialez hornitu nahi izatea, baldin eduki horiek zuzenduak zaizkien pertsonen – gehientsuenek, bederen - ez badituzte berentzaketat hartzen. Horregatik, irizpide independentista eta sozialdun kontzientzia sorraraztea dugu prozesu independentistak aurrera egin dezan eginkizunik premiatsuenetarikoa bat.
- 56.- Edonola ere, jadanik esana dugun bezala, Sortuk pentsatzen du EH Bilduri eta EH Bairi dagokiela protagonismo mediatikoaren parterik handiena, eta, ondorioz, egokiago deritza bere adierazpide mediatiko-komunikatiboak noizbehinka bakarrik eta kualitatiboki benetan esanguratsuak direnean egiteari, adierazpideok areago gogoeta eta ekimen estrategikoei eratziz, eguneroko gorabehera politiko-instituzionalen jarraipenari baino.
- 57.-Bestalde, bere zeregin kontzientziarazle horretan, Sortuk gai izan behar du etika eta praxi militante koherenteak eta elkar-osagarriak artikulatzeko. Sortuko militanteek aldarrikatzen dutenaren arabera saiatu beharra dute bizitzen, diskurtso hutsa hutsal gertatuko ez bada. Izan ere, herri eta jendarte demokratikoa ari baldin bagara proposatzen, gure jokabidea ere halakotzat behar da hautemana izan; gardentasuna beharresten badugu, garden behar dugu izan; eta mundu solidario baten alde gaudela

badiogu, lehen lerroan egon beharra ere badugu, guri bigarren mailako iruditu arren, beraietan inplikaturik dauden pertsonentzat garrantzi ezin handiagokoak diren hainbat eta hainbat kausa solidariotan. Baina hori dena jokabide purista geldotan trabatu gabe eraman behar dugu aurrera, beti gogoan harturik ezen ezinezkoa dela kontraesanik gabe bizitzea, eta begien bistatik sekula galdu gabe ezen gure helburua egitura sozialak, ekonomikoak, politikoak eta kulturalak aldatzea dela, eta hori, sinpleki, guztiz gauzaezina dela norberaren aldaketa pertsonal hutsaren bitartez.

58.-Azkenik, Sortuk pentsatzen du, eginkizun komunikatzaile eta kontzientziarazle horren baitan, harreman pertsonalak guztiz erabakigarriak direla, guk ez baitugu gure alde hedabide handien inolako estaldurarik, eta gainera uste baitugu ezen atxikimendu afektiboa hedabide horiek baino ahaltsuagoa izatera iritsi datekeela azken finean. Horregatik, Sortuk lortu nahi luke gure militante bakoitza izatea, nolabait esan, Sortu osoaren bozeramaile, hau da, militante guztiak bihurtzea halako terminal komunikatzaile eta kontzientziarazle bana.

#### 1.4.5.-Dinamika Aktibista Propioa

59.-Esparru mobilizatzailean ere protagonismoaren gehiena EH Bilduri, EH Bairi eta herri-mugimenduei egokitu behar zaiela baderitzogu ere, Sortuk apustu egiten du dimentsio edo dinamika mobilizatzaile edo "aktibista" propio bat ere antolatzearen alde, zeina, definizioz, Sortuko militante ez diren pertsonentzat ere zabalik legokeen. Eta hori ideien borrokaren zerbitzura preseski, eta, orokorki, Sorturen ildo politiko orokorraren zerbitzura, atxikimendu-mekanismo eraginkorra suerta dadin Ezker Abertzaleko sektore zabal ugari erakartzeko, pertsona horiek, dimentsio hori gabe, beren ekarpen militantea egikartzeko espazio egokia falta izango bailukete.

60.-Bestalde, dinamika mobilizatzaile edo "aktibista" horrek integrala behar luke izan, ez baita gai edo arazo hertsiki politikotara mugatuko (torturaren salaketa; euskal preso, erbesteratu eta deportatu guztiak etxeratzeko eskakizuna; Euskal Errepublika baten errebindikazioa, etab.), baizik eta baita hedatuko ere beste hainbat gai edo arazo sozial, ekonomiko, kultural, herrien arteko solidaritateari buruzko, eta abarretara. Era berean, geureneko dinamika mobilizatzaile edo "aktibista" horrek, zenbait kasutan, alde aurretik hausnartu eta/edo planifikaturiko gogoetei edo jarduera-lerroei erantzungo die, eta, beste zenbaitetan, aldiz, men egingo die abagunearen beraren eta/edo unean-uneke eztabaida-gai gorien baldintzei. Azkenik, geureneko dinamika mobilizatzaile edo "aktibista" horrek, zenbaitetan, kanpaina komunikatzaileak eta/edo mobilizazio iraunkorrak antolatzeko premia sortuko du, eta, beste zenbaitetan, errebindikazio- edo protesta-ekintza zehatz eta puntualen bat edo beste, besterik gabe. Nolanahi ere, eta hau azpimarratu beharra dago, edozein mobilizazio edo ekintza "aktibistak" gogoeta- eta planifikazio-aurrelana beharko du, baita ildo politiko orokorrekiko estekadura egokia ere, non eta aktibismo hutsaren segadan erori nahi ez dugun, praktika hau,

geroxeago ikusiko dugunez, Sortuk ezetsi egiten baitu.

61.-Azkenik, Sortuk hautsi behar du mobilizazio klasikoen inertzia, halakoek ez baitute dagoeneko ez zirrarak ez sistemarekiko hausturarik eragiten, eta, halakoen orde, jardunbide berriak asmatu. Zentzu honetan, Sortuk sektorerik kontzientziatuenak eta borrokalarienak, bereziki gazteria, limurtzearen aldeko apustua egin behar du, mobilizazio-era berrien bitartez, sinbologia berri bat erabiliz, hizkera berri batzuk baliatuz, hots, azken batean, epika berri bat sortuz. Izan ere, epika-ukiturik gabe, jarkiera adimentsurik, ekintza zuzenik eta desobedientziarik gabe, aldaketa ezinezkoa baita.

#### 1.4.6.-Masa-borroka eta borroka instituzionala elkar-osatu

62.-Hegemonia lortzen da, borroka ideologikoaren eta mobilizazioaren bidez ez ezik, baita botoarekiko borrokaren eta kudeaketa instituzionalaren bidez ere. Sortuk orekaz aintzatetsi beharko ditu bai mobilizazio sozial eta herrikoia, bai botoaren bilako mobilizazioa eta kudeaketa instituzionala, bataren ederrespenak bestearen gutxiespena edo ahanztura eragin ez dezan moduan. Zentzu honetan, garrantzitsua da honako ideia hau berpiztea, alegia, gazte-sektoreko, sindikatuko edo herri-mugimenduko edozein arduradun erakunde publikoetarako hautatua izan den edozein hautesi bezain garrantzitsua dela, zeren eta elkar osatu behar baitute borroka biek (sozialak eta instituzionalak). Premiazkoa da kalea eta mobilizazio-ahalmena berreskuratzea, baina hori bezain premiazkoa da garbi erakustea ezen Ezker Abertzalea, EH Bilduren eta EH Bairen bidez, gai dela hauteskunde-makina eraginkor eta kudeatzaile instituzional bikain bat izateko.

63.- Sortuk bere burua inplikatu beharra du, zuzenean nahiz zeharka, erdiespen sozialik desager ez dadin eta, batez ere, erdiespen berriak eskuratu ahal izan ditzagun ezinbestekoak diren borroka guztietan; eta, aldi berean, parte hartu behar du, EH Bilduren eta EH Bairen eskutik, hauteskundeen gatazkan eta erakundeen kudeaketan. Sortuk sinestarazi egin behar die batzuei ezen beharrezkoa dela herri-mugimenduak indartzea eta berorietan bermatzea bai erakundeen jarduera-marjinak etengabe zabaltzeko bai politika eraldatzaileak aurrera eraman ahal izateko, eta beste batzuei, berriz, ezen ezinbestekoa dela erakundeen eta legeen laguntza aurrerapen herrikoia eta sozialak irmotzeko.

64.-Sortuk, halaber, ardura osoz jokatu beharko du aldaketa- edo eraldaketa-gobernuek aurrera jarraitu ahal dezaten. Horregatik, Sorturen eta beronen militantzia osoaren eginbeharra izango da gu geu ez erortzea eta beste inori ere (alderdi aliatuei edo herri-mugimenduei) erortzen ez uztea eraldaketaren aldeko gobernuei sostengurik ez emateak edo beroriei zuzenean eraso egiteak suposatuko lukeen arduragabekeria. Eta kontuz: sostengua emateak ez du esan nahi txeke zuririk ematea, ezta interpelaziorako

edo kritikarako aukerari uko egitea ere. Kritika eta interpelazioa, eraikitzaileak izanez gero, erabat ezinbestekoak dira. Baina lekuz kanpo daude bai etengabeko erantzukia urtetan garaturiko politika erreakzionarioak hilabete gutxi batzuen buruan aldatu ez direlako, bai nahikeria oro, horretarako indar-korrelazio askirik ez egonik, erakundeek guk gogoko genituzkeen hainbat politika edo proiektu gauza ditzaten, jokaera horrek ongarritu besterik ez baitu egiten indar erreakzionarioen soroa. Horregatik, Sortuk kontzientziatu egin behar ditu bere militantzia eta beste hainbat sektore sozial eta herrikoi, axalekerian eror ez daitezen, ezta ezein sasi-erradikaltasunetan ere, eta bihur ez daitezen, zinez, oharkabean bada ere, edozein eraldakuntza-gobernu, dela tokiko, dela probintziako, dela autonomiko, eroraraztea beste helbururik ez duten botere faktiko batzuen bozgorailu.

65.- Azkenik, Sortuk ulertarazi egin beharko die bere militanteei ezin dela hauteskunde-babes sozial gehiengodunik erdietsi, baldin soilik sektorerik erradikalenei edo ideologizatuenei egiten bazaie jaramon eta haien asebetetzea bakarrik bilatzen. Era berean, jakinarazi beharko die aliantza edo fronte zabaletako bere bazkideei ezen ezein eraldakuntza ez dela lorgarri izango, baldin eta, gaizki ulerturiko pragmatismo baten edo zentro politikoaren (ezen ez zentraltasun politikoaren) bilaketa antzu baten peskizan, bazterrean uzten baditugu sektore ideologizatuenak eta borrokalariak diren horiek.

#### 1.4.7.-Jarduera sozial eta komunitarioa. Komunitatearen antolakuntza eta ahalduntzea

66.-Sortuk apustu egiten du errebindikazio- eta/edo protesta-dinamika sozial oro sustatu eta indartzearen alde, baldin horien helburua bada edozein eskubide sozial, ekonomiko, kultural, ingurumeneko, zibil edo politiko urratu izana salatzea eta/edo berori errespetatua izan dadin galdatzea.

67.-Bestalde, Sortuk izaera estrategikoa aitortzen die, herri-erakunde edo mugimendu kontzienteen eta borrokalarienei ez ezik, baita asoziazionismoari berari orokorrean ere, uste baitu ezen antolakuntza mesedegarria zaiola herritargoari beronen kontzientzia-hartze eta ahalduntzearen bidean, jarduera politikoaren subjektu eta ez objektu bihur dadin eta neoliberalismoarenez bestelako eta harantzagoko hainbat balioen gizarteratzaile, hala nola lankidetzeta, kolektibizazioa, elkartasuna, senidetasuna, berdintasuna...

68.-Horregatik, Sortuk deliberatuki hartuko du parte eta lan egingo dinamika sozial antolatu guztietan (jendarte-mugimenduetan, langileenetan, kulturaletan, elkartasunezkoetan, gazteenetan..., baina baita, halaber, auzo-, kirol-, aisialdi- edo beste edozein motatako elkartetan), beti ere uko eginez edozein gibelasmo ondare-beretzaile, fiskalizatzaile nahiz oro-zuzendariri, hots, apaltasunez. Eta, era berean, Sortuk komunitatea maila guztietan antola dadin sustatzearen aldeko apustua dago, komunitatea bera bilaka

dadin eraldakuntza sozialaren subjektu aktibo eta protagonista.

69.-Horretarako, eta arau orokor gisa, Sortuko militante orok parte hartu beharko du erakunde, mugimendu, dinamika edo proiektu sozial eta/edo komunitarioen batean edo bestean.

#### 1.4.8.- Militanteen trebakuntza

70.-Sortuk hezi eta trebatu egin behar ditu bere militanteak (bereziki, gazteenak, beraiek baitira etorkizunaren berme), estrategia independentista eta eraldatzailearen egile-eragile bihurtzeko. Militante-koadro trebez elikatu behar dira bai Sortu bera, bai erakunde, mugimendu eta dinamika sozialak eta/edo komunitarioak, alde batetik, baita EH Bildu eta EH Bai ere, bestetik. Eta modu sistematiko, antolatu eta planifikatu baten arabera egin behar da lan hori, honako ekimen hauen bidez, besteak beste: Eskola Politikoa, Iratzar Unibertsitatea, argitalpenak...

71.-Trebakuntzaren izaerari edo edukiari dagokionaz bezainbatean, berau ez da soilik politikoa izan behar, baizik eta integrala, alegia, plangintza-, antolakuntza- eta kudeaketa-teknika eta ezagutzetatik hasita, bilerak eta batzarrak, negoziaketak eta are krisi-egoerak ere kudeatzeko metodologia eraginkorretarainokoa; eta harreman-, partaidetza-, lidergo- eta oratoria-tekniketarik, kudeaketa instituzionalean ere trebatzerainokoa.

72.-Bestalde, trebakuntza hori ezin da teoriko hutsa izan, nabarmenki praktikoa baizik. Eta, horretarako, ezin da mugatu formatu klasikora (dokumentuen irakurketa, eskola "magistralak" etab.), baizik eta multimodala eta beste hainbat metodologia eta baliabide bere baitan bilduko dituen, hala nola talde-laneko dinamikak, talde multidiziplinarren eraketa, gogoeta eta sormen kolektiboko lantegien antolakuntza, etab.







## 2.-SORTUKO MILITANTEA

### 2.1.- NOR DA SORTUKO MILITANTE?

73.- Sortuko militante izan daiteke (hemendik aurrera, "Sortzaile"), 16 urteko adinetik gora izanik, Sorturen helburu politikoak, estatutuak eta balioak onartzen dituen eta gure erakundeko kide izan nahi duen pertsona oro.

74.-Beraz, borondatezko erabakia izaki, Sortzaile izango da, aipaturiko adin-mugaren eta ideologiaren aldetiko baldintzak betez gero, bere burua afiliatu eta kuotaren ordainkizuna eguneratua daukan pertsona oro. Horretarako egon daitezkeen lan egoera ezberdinak kontutan izango dira. Sortzaile dira, horrenbestez, beren borondatez halakotzat onartuak izatea eskatzen dutenak.

75.-Erregistroa edo afiliazioa nahiatezko betekizuna da, funtzionamendu demokratikoa eta joko-arau zintzo eta integratzaileak ahalbidetzearren.

76.- Sortzaile oro, erakundean sartzen den unetik beretik, 2.3 puntuan zehazten diren eskubide eta betebeharrak guztien jabe eta erantzule bihurtuko da. Afiliatu gabeko militanteak, berriz, Sortzaile ez direnak, alegia, nahiz eta Sortuk zabalduko langune eta dinamiketan parte hartu, ez dira eskubide-betebeharrak horien jabe-erantzule izango.

77.-Sortun sartzeko eskaera oro tokian tokiko Sortugunean egin behar da. Honek eskaera Bermeen Batzordeari helaraziko dio, berau baita gai honetan eskudun, eta honek onetsi ala ezetsiko du, beti ere modu behar bezain arrazoitu eta argudiatuan.

78.-Sortzailetasuna honako zio hauetariko batengatik galduko da: borondatezko uzteagatik, heriotzagatik, kuotaren ordainkizuna egunera ez edukitzegatik -horretarako aski arrazoi bidezkorik ez badago-, edo erakundetik kanporatua izateagatik hutsegite oso larri baten ondorioz.

79.- Sortzaileei dagokienez, Sortuk onartu eta ahalbidetu egingo ditu militantzia-intentsitate ezberdinak, noizbehinkako eta/edo aldian-aldiko partaidetza barne, baina ekarpen militante jarraitua eta iraunkorra hobetsiko du, berau ezinbesteko oinarria baita erakundearen funtzionamendu egokirako.

80.-Azkenik, adierazi den bezala, Sortuk ekarpen- eta partaidetza-guneak atonduko ditu Ezker Abertzalearen oinarri sozial zabalari zabalik; hau da, gure proiektu politikoarekin ados egon arren, eta funtzionamendu kolektiborako oinarrizko joko-araua, alegia,

kolektiboki hartutako erabakieko atxikimendu norbanakoa, onartu arren, hala ere Sortun afiliatu nahi edo ezin duten pertsona guztientzat. Are gehiago, Sortuk ahalbidetuko du pertsona horiek eztabaida eta erabaki nagusietan parte hartu ahal izatea (Kongresuetan, Konferentzia Politikoetan, zenbait Batzar Nazionaletan...), halakoetara izena emateko edo ad hoc baimen bidez bertaratzeko aukera eskainiz.

## 2.2.-SORTUKO MILITANTEAREN JOKABIDE-ARAUAK

81.-Sortuk kultura politiko-antolakuntzazko berri baten aldeko apustua dagi, eta bere militanteak kultura horren egile eta eragile eraginkor izan behar dute.

82.-Kultura politiko-antolakuntzazkoak lotura hertsia du antolatzen garen, funtzionatzen dugun eta, are, pentsatzen eta jarduten dugun moduarekin. Horregatik, egitura bat noiznahi alda badaiteke ere, kultura, berriz, ezin da egun batetik bestera bestelakotu, horrek aldaketa sakonak, kolektiboak eta pertsonalak, beharresten baititu, prozesu mailaz-mailako eta dinamiko baten, eta ez bat-bateko bulkada baten, emaitza izan ohi direnak.

83.-Horrela bada, Sortuk kultura-aldaketa horretarako beharrezkoak diren dinamikak eta prozesu kolektiboak abiaraztearen aldeko apustua dagi, eta ahaleginak egingo ditu bere militanteak ondoren zehaztera goazen funtzionamendu-, lan-, pentsaera- eta ekintza-moldeotara gertura daitezen.

84.- Sortuko militantzia bere kabuz pentsatzeko gai den militantzia bat izan behar da, militantzia autonomo bat. Lanari ekiteko ildo politikoaren xehetasunen zain ez dagoena, herriarekin dialektikoki diharduena, herriari entzun gabe herriari zer komeni zaion alde aurretik ez dakiena, denon artean adosturikoa interpretazio zehatz bat, inguruabar zehatz bakoitzari egokitua, behar duen mapa moduko bat besterik ez dela dakiena. Militantzia bat, alegia, mezu-helarazle huts, edo informazio-bitartekari huts, ez dena, baizik eta, orientazio orokorrak aintzat harturik betiere, bere-berezko irizpidez baliatzen eta denon artean eztabaidaturikoa ekintza politikora txertatzeko ahalmenaz errealtatea interpretatzen dakiena.

85.- Sortuko militantzia pentsamendu kolektiboan, berau indartuz, parte hartzen duen militantzia bat izan behar da. Behar besteko argitasuna izan behar du, menperatzea eta deuseztea gauza bat eta bera izan ohi direla ulertzeko. Lider legezainaren garaiak, edo militantzia iraultzailearen berezko ahalmenari buruzko sineskerien garaiak, iraganeko kontua dira. Ezagutza erkidetuaren garaia, ekintza kolektiboarena, ahalduntze sozialarena, horixe dugu gaur egungoa.

86.-Sortuko militantzia ez da izan behar bere zilborrari begira –bere erakundeari begira, alegia – bizi den militantzia bat, baizik eta herriari. Sortzailetasuna eta partaidetza soziala

sustatzearren militatzen dugu, balio aurrerazaleak bultzatzearen, gure herriarenganako amodioz. Baliteke gure zergatiak idealistak izatea, baina ez gara inoren salbatzaile. Geure burua dugu salbatzen. Ahaleginari ekiten badiogu, gailurrera iritsi eta handik panoramaz gozatu nahi dugulako da; inork ez digu halakorik egitea eskatzen, eta guk ere ezin diogu inori kargu hartu guk geuk egin dugunarengatik. Naturaltasunez, eskuzabaltasunez, ematen dugu, eman nahi dugulako, ez egunen batean eman dugun horretxan ordaina erreklamatu nahi dugulako. Eskuzabaltasunaren fruitu izan ohi da benetako ordaina.

87.- Sortuko militantziak bizipozez borrokatu behar du. Horrela, izan ere, ilusioa, suhartasuna, poza eta grina darizkieke gure ekimenei. Baldin borrokari sufrimendu edo etsimendu baderitzogu, zabalduko dugun mezua negatiboa eta uzkurtzailea izango da. Biziberritu beharra dugu gure borroka, eraldakuntzaren praxia, katarsi pertsonala eta irudi soziala bizipozezko ekinean gorpuztuz.

88.-Sortuko militantziak gogotik landu behar du elkarrekiko konfiantza. Izan ere, militanteen arteko abegikotasun eta konfiantzazko harreman-kateari erreparatzen ez dion erakunde batek, beharbada, irabaz dezake gatazkaren bat edo beste, baina inoiz ez da behar bezain eraldatzaile izango, bere gene politikoak erresuminez kutsatuak baitaude. Konfiantza, kidetasuna, ezinbestekoa da, oinarritik beretik, edozein ekintza politiko nahiz sozial artikulatzeko. "Kidetasuna" diogu, ezen ez adiskidetasuna, Sortzaile guztiok ez baitugu derrigorrez elkarren adiskide zertan izan, baina elkarrenganako konfiantza, hori da motorra, horrek ez bestek emango baitigu denoi behar besteko segurantzia, ustez ezinezkoak diruditen hainbat gauza ere burutu ahal izateko.

89.- Zentzu horretan, barne-kainismoa izan ohi da etsairik okerrena. Hots, senideen arteko elkar-jatunkeria. Barne-kalapitak, ordea, hau da, botere-gune edo taifa-erresuma txikiak behin eta berriro sortzen tematzeak, aldendu egiten du gure arreta benetako lehenetasunetatik, gure indarrak alferrik xahuarazten eta gauza garrantzitsuak bigarren maila batera baztertzen, eztabaida antzu, antagoniko eta pertsonalistak gailenduz. Anai-arreba etsai bihurtzen da.

90.-Sortuko militantzia militantzia erresilentea izan behar da: ihiaren antzekoa, irmoa baina malgua. Irmoa printzipioetan eta konbikzioetan, malgua beraien interpretazioan eta aplikazioan. Irmo sistemarekiko, baina ulerbera norberaren nahiz besteren ezintasun eta mugekiko; euskor oztopoekiko, baina jasanbera eragozpenekiko; ideietan iraunkor baina aldaketei abegikor...

91.-Zentzu horretan, berria eta sortzailea denaren bizigarritasunak osagai funtsezkoa behar du izan irmotasunaren estrategiaren baitan. Barne-eztabaidan ikonoklasta, gehiengoek erabaki dutenari leiala, eta erabakiok herritarrei helarazterakoan malgua behar du izan Sortzaileak. Borroka politikoa ez da ezein erlijio berri. Buru-belarri

ahalegindu beharra dugu gure jarduera politikoa ez dadin geldoa izan, berritasunaren eta sortzailetasunaren bultzadak irmotasunaren estrategiari lagun diezaion.

92.- Sortuko militantzia militantzia ez-dogmatikoa izan behar da. Dogmak edo irmotasun porrokatuak murriztu egiten dute ideien loratzea eta hobetzea. Zenbat eta dogmatikoago, hainbat eta ez-sortzaileago. Beraz, dogmen leihoak zabaldu eta eguras dezagun etengabe gogoeta. Ekuazio dialektikoa aldi berean leialak eta heterodoxoak izatean datza. Edo, bestela esanda, heterodoxo diziplinatuak izaten asmatzean.

93.- Sortuko militantziak arbuiatu egin behar du sektarismoa, osotoro baztertuz edozein jarrera sektario, bai Sorturen barne-bizitzan, bai partaide den zeinahi erakunde, mugimendu edo dinamikatan. Gure helburuak erdiesteko beharrezkoa baldin baderitzogu gehiengo zabalak hitzartzeari, uxa dezagun erabat Sorturen bizitza politiko eta militantetik sektarismo oro, jarrera amore-emankorrek nahiz ohikeriazkoak, edota sormen militantea deusezten dutenak ere, uxatu behar ditugun bezalaxe.

94.- Sortuko militantziak honako dohain hauek erakutsi behar ditu nabarmen: apaltasuna, naturaltasuna, ezaguera, prestakuntza eta gogoberotzeko gaitasuna, herritarren kohesioa eta mobilizazioa adeitsuki sustatuz –zabalduz itxiz bainoago, entzunez hitz eginez bainoago, konbentzitur gailenduz bainoago-. Gure militantziak nabarmendu beharra du, izan ere, kolektibizatzeke, auzolana hobesteko, talde-lan desinteresatua, neurritsua eta adoretsua bultzatzeko duen gaitasunarengatik, egolatria eta uzkurkeria ororen gain. Bere “ni”-a “gu”-ren alorrera eramaten jakin behar du, helburu erkidetu bateranzko borrokan bere burua eta besterenak mobilizatzen dakiela erakutsiz.

95.-Sortuko militantzia militantzia kontsekuentea izan behar da, aldarrikatzen duen diskurtsoaren adierazpen bizia: apala, zintzoa, eskuzabala, gardena, xumea, autokritikoa, humanista, arrazoizalea, irekia, bat-etorkorra, erreferentziala, zuzenkeriarik gabe orientatzailea, eta interbentzionismorik gabe eskuhartzailea.

96.-Sortuko militantzia gaitasun pertsonaleko militantzia izan behar da, gaitasun hori handitu eta hobetzeko etengabeko grina eta konpromisoaren jabe. Beraz, honelakoa beharko luke: trebatua, sortzailea, ekimentsua, etsigaitza, adoretsua, autokritikoa, komunikatzaile ona (zer diogun bezain garrantzitsua da nola diogun), pentsamendu logiko eta analitikorako, baita sintetikorako ere, gaitua, entzuten eta aditzen dakiena, antolatzaile ona...

97.-Sortuko militantziak adimen emozionala eta enpatia soziala izan behar ditu. Jakin behar du afektu-katea sortzen, emozioak positiboki higiarazten, konfiantza ematen, abegitsu izaten, logikaz komunikatzen, gatazkak kudeatzen, elkar-lanean lan egiten ...

## 2.3.- SORTUKO MILITANTEAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

### 2.3.1.-ESKUBIDEAK

- 98.-Sortzaileak eskubidea du informazioa jasotzeko eta erakundearen barne- nahiz kanpo-bizitzan parte hartzeko. Zentzu horretan, Sortuk euskal preso, errefuxiatu eta deportatu politikoen parte hartzea bermatzeko beharrezko mekanismo eta prozedimenduak ahalbidetuko ditu, erakundearen barne bizitzan bereziki zein prozesu politikoan oro har.
- 99.-Sortzaileak botorako eskubidea du bere Sortuguneko erabakizun kolektibo guztietan, baita Kongresu, Batzar eta Konferentzia Politiko guztietan ere, baldin hauek orokorrak eta ez ordezkarietzakoak soilik badira. (Ikus III. Blokea: Antolakuntza Eredua, 2.3.2. azpiatala).
- 100.- Sortzaileak hautatzeko eta hautatua izateko eskubidea du Sortuko edozein barne-karguren hautespenean.
- 101.-Sortzaileak adierazpen askerako eskubidea du eta, gai bakoitzari dagokion instantzia eskudunaren aurrean, mintzatzeko eta aditua izatekoa.
- 102.- Sortzaileak behar den begiruneaz tratatua izateko eskubidea du, eta bere edozein iritzirengatik ezein kiderengandik mespretxurik jasan beharrik ez izatekoa.
- 103.- Sortzaileak trebakuntza politikorako eskubidea du. Berau bermatzearen, Sortuk trebakuntza jarraituzko dinamika bat abiaraziko du, Iratzar Fundazioaren bitartez batik bat.
- 104.- Sortzaileak barne-promoziorako eskubidea du, bere atxikimendua eta gaitasun militantea behar bezala baliatuak eta aintzat hartuak izan daitezen Sorturen baitan.
- 105.-Sortzaileak eskubidea du, zioa edozein dela ere, ez diskriminatua izateko, eta Bermeen Batzordera jotzekoa, baldin bere militante-eskubideei eraso egin zaiela baderitzo. Era berean, eskubidea du Bermeen Batzordearen erabakiari helegiteko ere, berau bere interesen aurka ebatziko balitz. Eskubidea du, halaber, bere auzia berrikusia izan dadin, betiere baldintza bidezko eta jakin batzuk betez gero.

### 2.3.2.-BETEBEHARRAK

- 106.- Sortzaileak, eskubidea soilik ez, betebeharra ere badu pentsatzen duena esatekoa.
- 107.-Sortzaileak behar den bezalako begiruneaz tratatu behar ditu gainerako kideak, guztien iritzia aintzat hartuz eta sekula haiekiko irainik edo mespretxurik adierazi gabe.
- 108.-Sortzaileak ezagutu eta bete beharra du Sortuk onartua duen bortizkeria matxistaren aurkako protokoloa.
- 109.-Sortzaileak ez du inola eta inoiz gutxietsi behar beste inoren partaidetza nahiz ekarpen militantearen nolakotasuna nahiz maiztasuna.
- 110.-Sortzaileak izatea ez da bateragarria beste ezein alderdi politikotako militante ere izatearekin, ezta Sortuk eta/edo EH Bilduk eta/edo EH Baik parte hartzen ez duen beste ezein hauteskunde-plataformatako partaide izatearekin ere.
- 111.- Sortzaileak, hauteskunde guztietan, Sortuk bultzaturiko hautagaitzei eman behar die botoa, eta zorrozki debekatua du absentismoaren aldeko edo botoaren aurkako deirik, adierazpenik edo kanpainarik egitea, salbu eta, arrazoi taktiko eta/edo estrategikoengatik, abstentzioaren aldeko erabakia Sortuk berak hartzen duenean.
- 112.- Sortzaileak ez du inoiz adierazi behar publikoki Sorturekiko edo beronen ildo politikoarekiko desadostasunik. Desadostasun oro Sorturen beraren baitan behar da azaldua eta eztabaidatua izan, horretarakoxe eratuak dauden bide eta gune zilegiak erabiliz. Eta beste horrenbeste diogu LABekiko, Ernairekiko edo Sortuk aldeztu dituen fronte edo aliantzetako partaide diren gainerako alderdi edo erakundeekiko desadostasunei buruz ere (EH Bildu eta EH Bai gaur egun, eta, hipotetikoki, etorkizuneko beste edozein aliantza).
- 113.- Sortzaileak militante-kuotaren ordainkizuna eguneratua behar du izan.
- 114.- Sortzaileak bere Sortuguneko Batzarretan behinik behin parte hartu beharra du, maiztasun egokiz, bere herrian bertan -hura baldin badu bere militantzia-esparru nagusi -, edo, bestela, eskualde-, herrialde- nahiz nazio-mailako partaidetza-gune zabalagoetan (ikus III. Blokea: Antolakuntza Eredua, 2.2.2. azpiatala). Eta betebeharra du, halaber, Sortuk bultzaturiko ekimen edo mobilizazio batzuetan behintzat parte hartzekoa, EH Bilduren eta EH Bairen edo aurrerantzean Sortuk eta EH Bilduk/EH Baik berak alde litzaketen balizko aliantza zabalagoen hauteskunde-kanpainak barne.











---

sortu.eus

---



Zurekin  
**birsortu**